ONDORIO PERPAUSAK

1. Lotu esaldiak. Erabili kolore berdez agertzen diren egiturak.

- Oso ospetsua da. Txinan ere ezagutzen dute.

  HAIN NON BAIT-

- Jende asko dago. Ezin gara ez aurrera ez atzera joan.

  HAINBESTE EZEN -(E)N

- Kirolari ona da. Kirol guztietan nabarmentzen da.

  HAIN EZEN -(E)N

- Euri asko egin du gaur goizean. Kaleak erreka bat ematen du.

  HAINBESTE NON BAIT-

- Oso zintzoa da gure txakurra. Haur guztiak ibiltzen zaizkio atzetik.

  HAIN NON BAIT-

- Ariketa asko egin ditugu. Gaia buruz dakigu.

  HAINBESTE EZEN -(E)N

- Oso nekatuta gaude. Etxean gelditu gara telebista ikusten.

  HAIN NON -(E)N

- Bero handia egiten du gela barruan. Pentsa daiteke Egipton gaudela.

  HAINBESTE NON -(E)N

- Asko gustatzen zaigu irakurtzea. Ez dugu besterik egiten.

  HAINBESTE NON BAIT-

- Oso goxo dago pastela. Osorik jan dugu bion artean.

  HAIN EZEN BAIT-

- Oso azkarra da kotxea. Beste ibilgailuek motelagoak ematen dute.

  HAIN NON -(E)N

- Urte asko igaro ditu Australian. Ingelesa ikasi du.

  HAINBESTE NON BAIT-